



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2019/03/14

Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako Batzordeak aho batez onetsi dau Lamiakoko ibarra berreskuratzea

Bizkaiko Batzar Nagusietako Iraunkortasuneko eta Ingurune Naturaleko Batzordea osatzen dabenean 15 kideak aho batez agertu dira “Bizkaiko Foru Aldundiari, bere eskumenen barruan, eta inplikata dagozan erakundeakaz eta gizarte arloko alkarteakaz lankidetzan aktiboan, Lamiakoko ibarra berreskuratzeke lanean behar egin daiala eskatzearen” alde, “gune hori naturalizetako eta bioaniztasuna berreskuratzeke”. Podemos Bizkaia taldearen izenean, Josean Elgezabalek aurkeztu dauen proposamenak alderdi politiko guztien aldeko botoak jaso ditu: Euzko Abertzaleak, EH Bildu, Euskal Sozialistak, Podemos Bizkaia, Bizkaiko Talde Popularra eta Talde Mistoa.

Elgezabalen berbetan, Lamiakoko Ibarra “leku berezia da, zientziaren eta hezkuntzaren aldetik interesgarria, eta hegazti askoren atsedean eta babes leku, horreetako batzuk desagertzeke arriskuan dagozan espezieak, hain zuzen be”. Horren ostean adierazo dauenez, berreskuratzeke derrigorrezkoa da erakunde guztien eta inplikata dagozan gizarte arloko kolektiboen “inplikazio aktiboa”.

Euren txandan, talde guztiak ekimenaren alde agertu dira. Arturo Aldecoa (Talde Mistoa) adierazo dauenez, Lamiakoko ibarra “orain mende bi hareatza zan hezegune antropikoa da”, eta proposamenaren aldeko botoa emongo dauela esan dau “hegazti migratzaileentzat eta beste espezie batzuentzat garrantzitsua dalako”.

Eduardo Andrések (Bizkaiko Talde Popularra) esan dauenez, “proposamen generikoa da, baina alde agertuko gara”. Euskal Sozialistak taldearen izenean, Isabel Cadavalek hau azpimarratu dau: “pozik gagoz 16 hektarea baino gehiago dituan ibar hori berreskuratzea dalako proposamen honen xedea”. “Ados gagoz eta aldeko botoa emongo dogu”, iragarri dau David Lopategik (EH Bildu). Aitor Ibarrek (Euzko Abertzaleak) be bere taldea alde agertuko dala aurreratu dau, “ingurumenaren babesagaz orekea eukiko dauen garapen sozio-ekonomikoaren aldeko apustua egiten dogulako”.

Adostasuna izan da gaur egin dan bileraren ezaugarri nagusia, Arauz Besteko beste Proposamen bat be onetsi dalako –Euzko Abertzaleak, EH Bildu, Euskal Sozialistak, Bizkaiko Talde Popularra eta Talde Mistoa taldeen aldeko 13 botoakaz–, Aldundiari eskaria egiteke, “bere ohiko posta bialketetan, informazinokoetan edo publizidadekoetan plastikozko gutun-azalak edo plastikozko agaz babestutakoak erabili ez daizan, bialketaren eukiak hori justifiketan ez dauen kasuetan”.

Arturo Aldecoa Talde Mistoaren ordezkari bakar eta ekimenaren sustatzaileak esan dauenez, gure gizarte, etorkizunean, “publizidadearen zibilizazioa” izenez ezagutuko da, eta esan dau penagarria dala bialketa horreetako asko plastikozko edo metalezko estalkiak daukiezan paperetan bilduta bialtzea. “Ekimen hori, ganera, eredugarria izan leike beste enpresa, fundazio edo erakunde batzuek plastikoa erabili beharrean paper birziklatuzko bildukinak erabili daiezan”.

Eduardo Andrések (Bizkaiko Talde Popularra) adierazo dauenez, bere taldea ekimenaren alde agertuko da, baina esan dau, baita be, proposamenak aurrera egiteko nahikoa zala “Iraunkortasuneko eta Ingurune Naturaleko sailari eskari simple bat egitea edo Diputatu andreari deitzea”. Josean Elgezabal (Podemos Bizkaia) berbetan, proposamena “generalistea” eta “buenistea” da, eta bere taldea abstenidu egingo dala azaldu dau, proposamena “ez dalako inora helduko”.

“Funtsagaz ados gagoz, baina proposamen horrek alderdi gehiago jaso leikez”, zehaztu dau Isabel Cadavalek (Euskal Sozialistak). David Lopategik (EH Bildu) esan dauenez, “ekimena pausu txiki bat baino ez dan arren, ondo egongo da onestea”. Euzko Abertzaleak taldearen izenean, “plastikoaren erabilera arrazionalizau, murriztu, eta baita debekatu be egin behar dala” esan dau Gorka Beitiak.

Eremu Naturalen Babesa

Batzordeko bilerara Elena Unzueta Iraunkortasuneko eta Ingurune Naturaleko Foru Diputatu etorri da, eremu babestuak edo erabilera publikoko mendiak kirol ekintza jentetsuetatik edo erasangarrietatik babesteko Dekretuaren eukia azaltzeko, Arturo Aldecoa (talde Misto) eskatuta. Unzuetak zehaztasunez azaldu dau Bizkaian sailkatuta dagozan lau eremu naturaletan hainbat jarduera murrizteko eta debeketako oso neurri zehatzak jasoten dituan esparrua sortzen dauen foru arautegi barriaren eukia. Motordun ibilgailuen lehiaketak (bizikleta elektrikoak barru diralarik) debekatu egiten ditu, eta nabarmen mugatzen dau hainbat probatuko partaide kopurua: mountain bikeko probak (150 partaide, gehienez be), trail-a (300) eta oinezko martxak (500), zezeilaren 1etik irailaren 15era, garai horretan sortzen dabelako eragin handiena animalienan.

Bizkaiko Batzarretako alderdi politiko guztiek pozez jaso dabe Dekretu barriaren eukia. “Pozik jarteko modukoa da eremu naturalak babesteko kirol proba horreek arautu beharrez ados gagozala ikustea”, azpimarratu dau Unzuetak.

Eguneko gai zerrendan beste gai bi be egon dira. Lehenengo, David Lopategik Unzueta diputatuari egin deutson EH Bilduren ahozko erantzun-eskea, Nekazaritzako Zuzendaritzako Tasak arautzen eta eguneratzen dituan Foru Arau Proiektuari lotutako Genero Eraginaren Garrantzi Eza justifikatu daian. Elena Unzuetak erantzun dauenez, Tasen ganeko Foru Arau Aurreproiektua zehaztu aurretik “15 pausu” emon dira, eta teknikariak dira genero eraginari buruzko txostena egin dabenak. Txostenaren ondorioak erakusten dauenez, bardintasuna ikusten da arautegiak araututako tasak ordaintzen edo zerbitzuak hartzen dituen gizonen eta emakumeen artean.

“Emoten dauenez, Bardintasanari buruzko Foru Araua gero eta gehiago zapaltzen da, emoten dan pausu bakoitzean”, kritikatu dau Lopategik, eta gogoratu dauenez, EH Bilduk Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasan Diputatuari egin eutsan erantzun-eske beraren aurrean, arau horrek generoaren eraginari buruzko txostena izan beharko leukela autortu ebala diputatuak. Unzuetak barriro azpimarratu dau Genero Eraginaren Garrantzi Eza “geure teknikarien erabagia izan dala, emoten dauenez gauza bat pentsatu dabe eta beste bat pentsatu behar eben”.

Bukatzeko, Arturo Aldecoa Talde Mistoaren ordezkari bakarrak Arauz Besteko Proposamen bat aurkeztuta eukan, Banda gorria eta marroia deritxanek Euskadin kaltetutako pinudiak, preminaz, oxido kuprosos fumigetako eskatzeko Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioari, baina proposamena aurkeztu dauen berak baztertu dau, daborduko jaso dauelako Ministerioak gai horren ganean emondako erantzuna.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
14/03/2019

La Comisión de Sostenibilidad y Medio Natural aprueba por unanimidad impulsar la recuperación de la vega de Lamiako

Los y las 15 vocales que integran la Comisión de Sostenibilidad y Medio Natural de las Juntas Generales de Bizkaia han respaldado unánimemente una Proposición No de Norma para instar “a la Diputación Foral de Bizkaia a colaborar activamente, en el ámbito de sus competencias y con las instituciones y organizaciones sociales implicadas, en la recuperación de la vega de Lamiako cuyo objetivo sea la naturalización del espacio y la recuperación de la biodiversidad”. La propuesta, presentada por Josean Elgezabal, apoderado del Grupo Podemos Bizkaia, ha obtenido el apoyo de todas las fuerzas políticas: Nacionalistas Vascos, EH Bildu, Socialistas Vascos, Podemos Bizkaia y grupos Popular Vizcaíno y Mixto.

Elgezabal ha definido la vega de Lamiako como “un espacio singular, que tiene interés científico y educativo y que es lugar de descanso y refugio de aves, algunas de ellas en peligro de extinción”, para añadir que su recuperación exige “la implicación activa” de todas las instituciones y de los colectivos sociales implicados.

En su turno de palabra, todos los grupos han respaldado la iniciativa. Arturo Aldecoa (Grupo Mixto) ha señalado que la vega de Lamiako es un “humedal antrópico que hace dos siglos era un arenal”, anunciando su apoyo a la propuesta porque “es importante para las aves migratorias y otras especies”.

Eduardo Andrés (Grupo Popular Vizcaína) ha asegurado que “es una propuesta genérica, pero la vamos a apoyar”. En nombre de Socialistas Vascos, Isabel Cadaval ha destacado: “celebramos que la recuperación de esta vega, una zona de más de 16 hectáreas, sea objeto de esta proposición”. “Estamos de acuerdo y votaremos a favor”, ha anunciado David Lopategi (EH Bildu). Aitor Ibarra (Nacionalistas Vascos) ha adelantado también el apoyo de su grupo porque “apostamos por el desarrollo socio-económico en equilibrio con la protección del medio ambiente”.

El consenso ha sido la tónica general en la reunión celebrada hoy, en la que también se ha aprobado, -con los 13 votos favorables de Nacionalistas Vascos, EH Bildu, Socialistas Vascos, y grupos Popular Vizcaíno y Mixto, y la abstención de Podemos Bizkaia- otra Proposición No de Norma para instar a la Diputación a no utilizar “para sus envíos postales normales, informativos o de publicidad sobres de plástico o con acolchados plásticos, salvo en aquellos casos en que ello esté justificado por el contenido del envío”.

Arturo Aldecoa, único representante del Grupo Mixto y promotor de la iniciativa, ha señalado que nuestra sociedad será denominada en el futuro como “la civilización de la publicidad” y ha lamentado que muchos de estos envíos se realizan envueltos en plástico o en papeles con recubrimientos metálicos. “Esta iniciativa puede además servir de ejemplo para que empresas, fundaciones y otros entidades dejen de utilizar el plástico y lo reemplacen por envoltorios en papel reciclado”.

Eduardo Andrés (Grupo Popular Vizcaíno) ha anunciado el apoyo de su grupo a la iniciativa, aunque ha matizado que ésta podría haber prosperado “con una simple petición al Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural o con una llamada a la Diputada”. Josean Elgezabal (Podemos Bizkaia) ha tildado la propuesta de “generalista” y “buenista” y ha explicado que su grupo se abstiene porque “no va a llegar a ningún sitio”.

“Estamos de acuerdo en el fondo aunque esta proposición podría incluir más aspectos”, ha precisado Isabel Cadaval (Socialistas Vascos). David Lopategi (EH Bildu) ha asegurado que “aunque la iniciativa sea sólo un pequeño paso, no está de más aprobarla”. En representación de Nacionalistas Vascos, Gorka Beitia ha defendido que “hay que racionalizar el uso del plástico, reducirlo e incluso prohibirlo”.

Protección de los espacios naturales

En la reunión de la Comisión ha comparecido Elena Unzueta, Diputada de Sostenibilidad y Medio Natural, para explicar el Decreto que blindo los espacios protegidos frente a eventos deportivos masivos o impactantes, a petición de Arturo Aldecoa (Grupo Mixto). Unzueta ha relatado con detalle el contenido de esta nueva normativa foral que crea un nuevo marco que incluye medidas muy concretas para restringir y prohibir, en los diez espacios naturales declarados de Bizkaia, por ejemplo, las competiciones de vehículos a motor (incluidas las bicicletas eléctricas) y limita considerablemente la participación en pruebas de mountain bike (un máximo de 150 dorsales), trail (300) y marchas pedestres (500), entre el 1 de febrero y el 15 de septiembre, que es cuando se considera que puede haber un mayor impacto en los animales.

Todas las fuerzas políticas de las Juntas de Bizkaia han acogido con satisfacción el contenido de este nuevo Decreto. “Es de congratularse que todos los grupos estén de acuerdo en la importancia de regular estas pruebas deportivas para proteger los espacios naturales”, ha subrayado Unzueta.

En el orden del día figuraban también otros dos asuntos. En primer lugar, una pregunta oral de EH Bildu –presentada por David Lopategi– a la Diputada Unzueta para que justificara la falta de relevancia desde el punto de vista de género acordada en el Proyecto de Norma Foral por la que se regulan y actualizan las tasas de la Dirección de Agricultura. Elena Unzueta ha respondido precisando que se han dado “15 pasos previos” antes de concretar el Anteproyecto de Norma Foral de tasas y que son los técnicos los que han realizado el informe de impacto de género, concluyendo la igualdad entre los hombres y las mujeres que abonan las tasas o reciben los servicios regulados por la normativa.

“Parece que la Norma Foral de Igualdad se menoscaba cada vez más, a cada paso que se da”, ha criticado Lopategi y ha recordado que, ante la misma pregunta que formuló EH Bildu a Teresa Laespada, Diputada de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, ella reconoció que la citada norma tendría que haber tenido informe de impacto de género. Unzueta ha incidido en que la falta de relevancia de impacto de género ha sido una decisión de “nuestros técnicos que han pensado una cosa y parece que tendrían que haber pensado otra”.

Finalmente, una Proposición No de Norma presentada por Arturo Aldecoa, único representante del Grupo Mixto, para instar al Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación a dar respuesta urgente a la petición de fumigar con óxido cuproso los pinos afectados por las llamadas “bandas roja y marrón” en Euskadi, ha sido retirada por el propio proponente al haberse obtenido ya una respuesta a este asunto por parte del Ministerio.